



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 22a

84. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da “2021-2027 aldirako Nafarroaren posizio amankomunerako akordioa, Nekazaritza Politika Erkidearen aplikazioari aurre egitekoa” izeneko dokumentuan jasotzen diren 12 puntuak defenda ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan, sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bitartekari lana egin dezan izaera sozialeko etxebizitza erosi dituzten enpresekin, etxebizitza horiek espekulaziorako erabil ez ditzaten, heldu diren urteotan babes ofizialekoak izateari utziko dioten etxebizitzaren zentsu bat egin dezan eta etxebizitza sozialei buruzko araudia alda dezan. Mozioa erretiratzea (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Lizarran Familia Elkartzeko Gune bat abian jartzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko pazienteei osasun-laguntza bermatzearen osasun arloko profesionalak fidelizatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, ostalaritzaren eta turismoaren sektorearentzako laguntzei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroan enplegu-plan bat sinatzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Audenasa konpentsatzeko formularen erabilitako “C” koefizientearen balio-aldaketa buruzkoa. Galdera erretiratzea (7. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da “2021-2027 aldirako Nafarroaren posizio amankomunerako akordioa, Nekazaritza Politika Erkidearen aplikazioari aurre egitekoa” izeneko dokumentuan jasotzen diren 12 puntuak defenda ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “2021-2027 aldirako Nafarroaren posizio amankomunerako akordioa, Nekazaritza Politika Erkidearen aplikazioari aurre egitekoa” izeneko dokumentuan jasotzen diren 12 puntuak defenda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, al bait lasterren izapidetu dadin eta Landa Garapeneko Batzordean eztabaidatu dadin:

Nafarroako Nekazaritza Kontseiluak bilera monografiko bat egin zuen berriki, NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen negoziazioa zertan den aztertzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko

Departamentuaren kontsultarako eta aholku emateko kide anitzeko organoaren bilkura horretan, mahai gainean jarri zen EBko Nekazaritzako Ministroen Kontseiluaren erabakia atzeratzen ari delako kezka, zeinaren ondorioz bertan behera geratu baitira bai Nekazaritza eta Landa Garapeneko Batzorde Sektoriala bai autonomia erkidegoek Planas ministroarekin egin beharreko konferentzia sektoriala ere, hurrenez hurren hilaren 4an eta 11n egin behar zirenak hasiera batez eta oraindik ere deitu ez direnak.

Europako esparruan, foro ezberdinetan (trilogo deitutakoetan: Kontseilu Europarra, Europako Parlamentua eta Europako Batzordea) ematen den desadostasuna batez ere gertatzen da proposamen berriak ingurumenari dagokionez dauzkan asmoetan eta, bereziki, NPEren aurrekontuko zer ehuneko bideratu beharko litzatekeen ingurumen-jasangarritasunari buruzko auzietara eta ustiategiaren jasangarritasun ekonomikoarekiko orekara.

Estatu mailan, aipatutako konferentzia sektorial horiek laster deituko direnez gero, funtsezkoa iruditzen zaigu EHNE, UAGN, UCAN eta AUNAR nekazaritza-elkarteekin adostutako jarrerak defenda ditzan Nafarroako Gobernuak; honako hauek, hain zuzen ere: eskubideetan oinarritutako ordainketak kentzea, ordainketa birbanatzailea aldezte (jarduera erreala duten ustiategiak onerako diskriminatzekeo tresna gisa) eta familiako nekazaritza-ustiategi profesionalak sustatzea, horiek direlako lurraldean jarduera erreala mantentzen dutenak eta aro berriak planteatzen dituen ingurumen- nahiz jasangarritasun-erronkei aurre egiteko gai izanen diren bakarrak.

Hori guztia jasota ageri da nekazaritza-sindikatuarekin eta kooperatibekin lortutako 12 pun-

tuko akordioan, “2021-2027 aldirako Nafarroaren posizio amankomunerako akordioa, Nekazaritza Politika Erkidearen aplikazioari aurre egitekoa” izenekoan.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamenak aurkezten ditugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak, EHNE eta UAGN nekazaritza-sindikatuak eta UCAN-Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak “2021-2027 aldirako Nafarroaren posizio amankomunerako akordioa, Nekazaritza Politika Erkidearen

aplikazioari aurre egitekoa” izeneko dokumentuan lortutako akordioko 12 puntuak defenda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nekazaritza Politika Erkidearen bigarren zutabea sendotu dezan, landa garapeneraren arloan dauzkagun eskumenak sendotzeko modua eta oinarritzko tresna den alde-tik, gure lurraldeari eta gure produkzio-sektorearen errealtateari egokitutako politika berekiak taxutzea ahalbidetzen diguna.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Foru parlamentariak: Virginia Magdaleno Alegría, Pablo Azcona Molinet, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan, sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan, sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lurraldearen Antolamen-

du, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean eztabaidatzeko.

Etxebizitza duina izateko eskubidea elementu subjektibotzat jaso zen 2018ko Etxebizitzari buruzko Legean, baina oraindik ere zenbait urrats egin behar dira, eta argi geratu da hori familia askok beren etxebizitzaren alokairua galtzeko arriskua izan dutenean, prezioak direla eta planteatutako igoeren ondorioz.

Gure ustez, etxebizitzak herritarrak haietan egiazki bizitzeko tokiak dira, eta ez espekulaziorako elementuak, etekinak modu azkarrean lortzeko merkatu-objektu hutsak, krisi ekonomikoaren aurreko higiezinaren burbuilaren urteetan gertatu zen bezala.

Gogora ekarri beharra dago etxebizitzaren alokairu babestua pribatizatzearen aurreko ereduaren ondorioz sortutako egoera; izan ere, kalifikazioaldi jakin bat iragan ondoren, etxebizitzak merkatu librerara ateratzen ziren haietan maizter zeuden familiak babesik gabe utzita. Eta horretan, muturreko kasuak izan dira; esate baterako 2020. urtearen hasieran gertatutakoa, non Iruñeko hainbat auzotako familia ugari beren etxebizitzak –Testa Residencial enpresak aurretik erositakoak– uzteko arriskuan egon baitziren, babes ofizialeko etxebizitzak izateari utzi ondoren. Bestalde, azpimarratu behar da Navarra Sozial Housing

alokairu-plan publikoko sustapenek arrakasta izan dutela –500 etxebizitza sustatu dira, eta horietatik ia 200 dagoeneko amaituta daude– alokairu esku-ragarriaren eskaerari erantzuteko, babestutako alokairua sustatzeko eredia errotik aldatuta.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, alokairuko etxebizitzen parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan, sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa, eta, ildo horretan, Navarra Social Housing plan horren beraren bigarren fase bat bidera dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, erraz dezan lurzorua azalera-eskubideko erregimenean lagatzea, enpresa sustatzaileek alokairu babestuko etxebizitzak sustatzen laguntzeko, baina, nolana ere, titulartasun publikoko lurzatietan, halako moduz non lurzorua ez den espekulazio-faktore bihurtuko eta, aldi berean, inbertsioa amortizatzeko aldiaren ondoren, eraikitako ondarearen titulartasuna Gobernuari itzuliko zaion, bide horretatik ere etxebizitza-parke publikoa handitzeko.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bitartekari lana egin dezan izaera sozialeko etxebizitza erosi dituzten enpresekin, etxebizitza horiek espekulaziorako erabil ez ditzaten, heldu diren urteotan babes ofizialekoak izateari utziko dioten etxebizitzaren zentsu bat egin dezan eta etxebizitza sozialei buruzko araudia alda dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen bitartekari lana egin zezan izaera sozialeko etxebizitza erosi dituzten enpresekin, etxebizitza horiek espekulaziorako erabil ez ditzaten, heldu diren urteotan babes ofizialekoak

izateari utziko dioten etxebizitzaren zentsu bat egin zezan eta etxebizitza sozialei buruzko araudia alda zezan. 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00029).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Lizarran Familia Elkartzeko Gune bat abian jartzeari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Lizarran Familia Elkartzeko Gune bat abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialesko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialesko kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen familia elkartzeko gune bat abian jar dezan Lizarran, gehienez ere urtebeteko epean. Eskubide Sozialesko kontseilariak ba al du erabaki hori betetzeko asmorik?

Iruñean, 2021eko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko pazienteei osasun-laguntza bermatzearen osasun arloko profesionalak fidelizatzeari buruzkoa.*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Osasun Barrutiko pazienteei osasun-laguntza bermatzearen osasun arloko profesionalak fidelizatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordearen 2021eko ekainaren 29ko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tuterako Osasun Barrutiak arazoak dauzka medikuntzako langileak eta osasun arloko beste estamentu batzuetakoak fidelizatzeke. Arazo hori aspaldi pairatzen ari gara, eta ez da konpontzea lortu pediatrian, familiako medikuntzan, erizaintzan edo Oinarrizko Osasun Laguntzako administrazio-langileen arloan. Tuterako Reina Sofia ospi-

talean, arazoa medikuntzako zenbait espezialitatean ematen da: dermatologiako osasun-laguntzaren parte bat kanpoan kontratatuta dago, eta profesionalak falta dira beste espezialitate batzuetan, esate baterako nefrologian, non hemodialisiko unitate berriko obrak egiten hasi baitira.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Plantillak fidelizatzeko gai ez bagara, nola bermatuko zaie osasun-laguntza nefrologia/hemodialisiko, dermatologiako eta bestelako espezialitate-
etako gaixoei?

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, ostalaritzaren eta turismoaren sektorearentzako laguntzei buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, ostalaritzaren eta turismoaren sektorearentzako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak ekainaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan martxoan, ostalaritzarentzako eta turismoarentzako laguntzetarako deialdia egin zuen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko

Departamentuak, 18,5 milioi euroko aurrekontuzuzkidurarekin.

Nolabait ere, 2020ko abenduan emandako dirulaguntzei jarraipena ematera datoz 18,5 milioi horiek, eta horiei esker gure erkidegoa aitzindari da Estatuan laguntza zuzenei dagokienez.

Hiru hilabete joan dira jada bigarren deialdi hori egin zenez geroztik, eta sei hilabete lehendabizikotik. Zorionez, pandemiaren bilakaera ikusita ostalaritzako establezimenduak ireki ahal izan dira, modu mailakatuan bada ere, eta apurka-apurka itzuli dira ohiko errutinara, nahiz eta oraindik gorde behar diren zenbait muga edukierei dagokienez.

Uste dugu denborak ematen duen ikuspegiarekin laguntza horiei buruzko balorazio bat egin daitekeela jada.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

Departamentuak zer balorazio egiten du ostalaritzako eta turismoko sektoreentzako laguntza horiek direla-eta?

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Nafarroan enplegu-plan bat sinatzeari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan enplegu-plan bat sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2021eko ekainaren 24ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zertan da gure erkidegoan enplegu-plan bat sinatze aldera Nafarroako Gobernua eragile sozial eta ekonomikoekin batera egiten ari den lana?

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Audenasa konpentsatzeko formularen erabilitako “C” koefizientearen balio-aldaketari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Audenasa konpentsatzeko formularen erabilitako “C” koefizientearen

balio-aldaketari buruzkoa zen, eta 2021eko apirilaren 15eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00177).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

